

Honek ez dau konponbiderik. (I)

Zaharkitzearen aurrean...

Zaharkitzea

Askok ikusi genduan orain dala urte batzuk “Erosi, bota, erosi” dokumentala –eta ikusi barik dauanak **hemen** ikusi leike-, eta bertan ezagutu genduan ‘zaharkitzea’ hitza. Hitz honen bidez, beti ase barik dagoan, kontsumitzeko etenbako grina dauan kontsumitzailea sortzeko helburuz, kontsumo-ondasunak zaharkitu bihurtzeko, euren baliagarritasuna laburtzeko era definitzen da. Hainbat estrategia dago zaharkitze hori eragiteko.

Gehien harritzen eta hasarratzen gaituana, zaharkitze programatua da, hau da, eredu barri baten erosketa sustatze aldera, denpora jakin baten buruan huts egiteko edo baliogabe geratzeko prestatutako kontsumo-gai bat diseinatzea eta ekoiztea. Gure ustez, ez da batere etikoa produktu baten akatsa nahita eragitea, salmenta gehitzea helburutzat hartuz. Baina hau ez da zaharkitze-era bakarria, bada era burutsu eta, itxura batean, hain kaltegarria ez dan beste erarik.

Espekulazioaren zaharkitzea be bada eta honetan datza: amaitu bako produktuak edo benetan saldu gura dan produktuaren ezaugarri guztiak ez dabezanak merkaturatzean. Prezio merkean merkaturatzen dira merkaturatzen lekua irabazteko eta, beranduago, hasieratik merkaturatu eitekean produktu hobetua eskaintzeko.

Eta sumatutako edo eragindako zaharkitzea be aitatu daikegu, hau da, bakarrik kanpoko diseinua aldatzen dauana, produktua barria dala beta bestea jokoan kanpo geratu dala sinistaraziz. Produktu bat sortzen dabe itxura jakin batekin, eta aurrerago, produktu bera saltzen da, baina bakarrik bere diseinua aldatuta. Zaharkitze-mota hau erraz antzeman daiteke ehungintzan, armairuak oraindik egoera onean dagoan jantziz betetea dakarrezan moda-aldaketa bizkorak eraginez.



Antoine Doreren ilustrazioa

Modek eta prezio baxuek ezartzen daben kontsumitzeko erritmo bizkorak –zeren kontura?- “fast-fashion” deitutakoa eragin dau, bizkorra bere ekoizpenean, erabili eta botateko produktuak sortzen dituana; eten barik eta neurrigabe kontsumitzera behartzen dau eta baliabideen egungoko xahutzea dakar. «*Ehun-gaien ekoizpena bikoiztu egin da munduan hamarkada eta erdian, eta urtero 100.000 miloe jantzi ekoizten da mundu osoan, kalidade baxukoa, merkea eta erabili eta botatzekoa dan erropen ekoizpen eta kontsumoan oinarritutako sistemaren babespean*»¹. «*EEBBetan bakarrik, erropen 15 miloe tona botaten da urtero; erropa honeek, inongo tratamendu barik, zabortegietara eta itsasora botaten dira eta, ondorioz, mikroplastikoen (fibra sintetikoena) gehikuntza ikaragarria da*»². Ehungintzak ingurumenean dauan eragina eta gizartean eta genero-desbardintasunean dauana, estu lotuta dagoz³.

Kontsumitu eta berehala botateko produktuak ekoizteko era hau sistema kapitalistaren ezaugarrietako bati lotuta dago: gitxi batzuen irabazteko asmoa, ekonomiaren ardatz eta eragile lez. Baina, era berean, ekoizteko eta kontsumitzeko eredu hau ingurumen-arazo larri biri lotuta dago: lehengaien agortzea eta sortutako hondakinak kudeatu ezina. Zaldibarreko zabortegiko zoritxarreko gertaerak, «*alderdi anitzeko eta ondorio askoko arazoa izanda be, logika bakarria dau: kapitalaren eta berau pilatzearen lehentasuna biziaren gainetik*»⁴.

¹ Ehungintzak ingurumenean dauan eraginari buruzko datu gehiago [artikulu](#) honetan.

² Idem.

³ ‘Fast-fashion’ dalakoaren eraginari buruz, [irakurri](#). 40. agerkarian, erropei buruzko [monografikoa](#) egin eben.

⁴ ASKUNZE, Carlos, “[No es un vertedero, es el capitalismo](#)”, Naiz, 2020.eko otsailaren 28a

Lehengaien agortzea dakarren etenbako erauzketa, adiera zabalean ulertu behar dogu; ez dihardugu mineralez edo petrolioaz bakarrik, neurrigabeko erauzketa dago baso-ustiapenean, laborantzan, arrantzan eta turismoan be. Aspalditik dakigu planetako erregai fosilak mugatuak dirana, eta gaur egun ataraten eta kontsumitzen diran erritmoan urte gitxitan agortuko dirana. Ikerketa gehienetan hauxe aurreikusten da: *«petrolioaren erauzketaren gelditzea munduan, 2020 inguruan, eta ondorengo gainbehera, gasarena, 2030 inguruan eta ikatzarena, 2040 inguruan»*⁵. Baina honek ez gaitu mugez jabetu eta etenbako erauzketa alde batera itziko leuken eredia pentsatzera bultzatu; energia sortzeko lehengaiz aldatzeko aukera da pentsatzen ari garana. Erregai fosilen erreserbak agortzen doguzan bitartean, mugikortasun elektrikorako prestatzen ari gara ibilgailu hibrido eta elektrikoez baliatuz. Baina, zelan ekoiztuko da behar izango dan argindar guztia?, zenbateraino gehitu ahal izango da ibilgailu elektrikoen kopurua? Gainera, jakin badakigu, *«energia-iraultza barri honetan kobaltoak, litioak, zidarrak eta kobreak petrolioaren, gasaren eta ikatzaren lekua hartuko dabena gure suntsiketa korporatiboaren aurrez aurreko lerroan. Gure aire-turbinak, gure eguzki-panelak eta gure bateria elektrikoak ekoizteko metal eta mineralak lurretik atarako doguz, Erresuma Batuak salbamendu-txaluparen etikaz gozaten jarraitu daian: aldi baterako jasangarritasuna geure burua salbatzeko, baina behartsuen kontura»*⁶.

Izan be, *«gaur egun %58a Kongoko Errepublika Demokratikoan ataraten dan kobaltoaren kasuan, miloeka lagunak bizitza hondatzea, airea, ura eta lurzorua kutsatzea eta mehatza ingurua munduko hamar lekuri kutsatuenen artean iztea sustatzeko balio izan dau»*⁷.

⁵ MEDIAVILLA, Marga. *«De cuánta energía podremos disponer realmente?»*, El diario.es, 2015.eko urtarrilaren 12a

⁶ REHMAN, Asad. *«The 'green new deal' supported by Ocasio-Cortez and Corbyn is just a new form of colonialism»*, The Independent, 2019.eko maiatzaren 5a

⁷ Idem.

Iraupena

Hau, zoritxarrez, ohiko eta ikusezin bihurtu dala da arazoa. Horregaitik, ezinbestekoa da iraupenerako eremu eta esperientziak, normaltzat jotzen dogun errealidade honen aurkako jardunbideak agertzera emotea. Beste hainbat eremu eta egoeratan lez, beste aukera batzuk aurkezten ari diran gizabanako eta gizataldeak dagoz kapitalismo neoliberalaren jardunbide honen aurka.

Bizia erdian jarriz, egiteko, hartu-emonerako, ekoizteko eta kontsumitzeko beste bide batzuk agertzera emotea eta ahalbideratzea da kontua. Indarrean dan eta planetaren biziraupenaren eta biziaren beraren mugak gainditzen diharduan sistema kapitalistaren ekoizpen eta kontsumoaren hazkuntza mugagabearen aurrean beste aukera batzuk eskaini eta bizi. Yayo Herreroren arabera, *«bizia erdian ipintea, bizimodu duina, gizon eta emakume guztientzat bizitzea merezi dauan bizitza bermatzea lehentasuntzat hartzen daben politikak, kulturak, ekonomiak eta alkarteak eratzea da. Bizia erdian jartea, etorkizunari bildurrik deusan inor, bihar zer gertatuko jakon pentsatuz sufritzen dauan inor ez daben alkarteak eraikitzen doguzala bermatzea da»*⁸.

⁸Liburu hau irakurri: «La vida en el centro. Voces y relatos ecofeministas», por HERRERO, Yayo, PASCUAL, Marta & GONZÁLEZ REYES, María. Argitaletxea: Libros en Acción, Madrid, 2018.

Birziklatu, murriztu, berrerabili

Dakigunez, hondakinen kudeaketarako proposamenik ezagunena birziklatzea da. Baina ezin dogu ahaztu, jardunbide hori beste biri lotuta garatu behar dogula. Erakunde eta komunikabideen bitartez birziklatzera bultzatzen gaitue, baina beste jardunbide biak ahaztu egiten dabez: murriztu eta berrerabili.

Garrantzitsua da sistemak proposatutako aukeren aurrean aurkeztu gura dauan eduki jabetze eta huste alternatiborako arriskuaz jabetzea. Murriztea eta berrerabilteza ez dira sustatzen. Ez dabe ekoizpen eta kontsumo bizkorrerari eusteko balio, sistemak bere egin dauan birziklatzeak ez bezala. Birziklatzea edo ekonomia 'berdeari' lotutako elementuak kontzientziak nasaitzeko balio dauan irudi-garbiketarako erabilteko tentazinoa dago.

Baina, gainera, zera ikusten dogu: hiru jardunbide honek ez dirala konponbide, hondakinen egundoko ekoizpenari eta zabortegei eta errausketa-instalazioetan alperrik galtzeari aurre egiteko. *«Urtero, itsaso eta ozeanoek 12 milioi tona zabor jasoten dabe. Munduko egoera dramatiko da, are gehiago, plastikoen ekoizpenak 2020an egundoko igoera izan eta 350 milioi tonaraino igoko dala kontuan hartuta (1980an baino %900 gehiago)»*⁹. Beste jardunbide batzuek be hitz egin behar dogu...

⁹ GREENPEACE España, *«Reciclar no es suficiente»*

Pentsatzeko eta jokatzeko

- Autortzen dot nire bizitzan **hiru zaharkitze-moten eragina**? Zelan? Zenbateraino?
- Armairua aztertu daiket eta 10 bider baino gitxiagotan erabili dodazan erropa horreez jabetu. **Bigarren aukera emon deikiegu** Caritasen edo 'Traperos de Emaus' dalakoen bidez.
- **Murriztu eta berrerabilten dot?** Eta erabili eta bota? Erabilera bakarrek artikulurik erosten ete dot? Dagoeneko behar ez dodazan artikuluak erabilera barririk emoten deutset? Jasangarritasun eta birziklatzea sustatzen daben denda edo enpresetan kontsumitzen ete dot? Joten dot zerbitzu teknikorak, hondatutako etxetresna elektrikoak ordezkatu aurretik?...